

UDALBURUA
Gentza Alamillo

AIARAKO UDALAK 2017ko EKAINAREN 22an
EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo
José Antonio Bartolomé
Montse Angulo
Susana Martín
Lauren Uria
Esteban Hernando
Nerea Goti
Iraida Saenz de Lafuente
Iratxe Parro

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hamazazpiko ekainaren hogeita bian, hemeretziak direnean, Udaltzako Osoa bildu da ohiko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/85 Legea) 46.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut.

BERTARATU EZ

DIRENAK

Josu Artetxe

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak osoko bilkurara ongietorria eman die denei, eta besterik aipatu gabe eguneko aztergaien zerrendako gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2017ko maiatzaren 4an eginiko ezohiko bilkuraren akta.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, bertaratutako Udaltzako kideek onetsi egin dute akta.

2.- Onestea, bidezkoa bada, 2017ko maiatzaren 18an eginiko ohiko bilkuraren akta.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, bertaratutako Udaltzako kideek onetsi egin dute akta.

19:08an, Montse Angulo andrea sartu da bilkurara.

3.- Obra eta Zerbitzuen Foru Plana, 2018-2019.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) aipatu du, Informazio Batzordean eska zitezkeen bi obrak adostu ondoren (Luiaondoko Erabilera Anitzeko Eraikineko bi solairuak egokitzea, askotariko kultura-xedeetarako; eta igerilekuko hondartza-eremua estaltzea) eta udal-talde guztiek ontzat eman ondoren, udal-teknikariari eskatu diotela memoriak egiteko. Duela gutxi bidali zaizkie memoria horiek zinegotziei.

Iraida andreak (AB) esan du bere taldeak azaldutako zalantzak argitu zirela eta, Batzordean eman ziren azalpenak ikusita, egokitzen jotzen dutela obra horiek Obra eta Zerbitzuen Planeko programan sartzea.

Esteban jaunak (BILDU) aipatu du Luiaondoko Erabilera Anitzeko Eraikineko solairuak birgaitzeko obra egokia iruditzen zaiela; izan ere, aurreko legealdian ekin zitzaion obra horri eta eskertzen dute azkenean amaitzea. Ondo iruditzen zaie, halaber, igerilekuko lanak Obra eta Zerbitzuen Foru Planean sartzea.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) adierazi du Bilduri eskertzen diotela aurreko legealdian martxan zegoen proiektu batekin jarraitu izana, eraikina dagoeneko erosita baitzegoen. Ondoren, eskerrak eman dizkie talde guztiei, aurkeztutako proposamenekiko izan duten jarrera onarengatik.

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan eta bozkatu egin da. Bertaratu diren Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- 26/2017 Foru Dekretua, maiatzaren 2ko Foru Gobernuako Kontseiluarena, Obra eta Zerbitzuen Foru Planak 2016-2017 aldirako Arabako Lurralde Historikoko tokiko erakundeei laguntzak emateko deialdia onartzen duena.

IKUSI DA.- Obrak eta Zerbitzuak, Hirigintza eta Ingurumena Informazio Batzordeak 2017ko ekainaren 13an emandako aldeko irizpena.

Udalbatza Osoak, aho batez, hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Eskatzea 2018-2019ko Obra eta Zerbitzuen Foru Planean honako obra hauek gehitzeko:

- Luiaondoko Erabilera Anitzeko Eraikinean espazioak egokitzeko lanak.
- Udal-igerilekuetako hondartza-eremua estaltzeko lanak.

Bigarrena.- Udalak bere gain hartuko ditu obren finantzaketa osoa eta dagozkion ordainsariak. Halaber, Obra eta Zerbitzuen Foru Planeko Programa arautzen duen araudian aurreikusitako baldintza guztiak beteko dira.

4.- Erakunde-adierazpena, LGTBI Pertsonen Eskubideen Nazioarteko Egunaren harira egindakoa.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) aipatu du hurrengo egunean kolore anitzeko bandera bat eta azalpen-gutun bat banatuko direla, hala nahi duten batzarrek beren gizarte-zentroetan edo egokitzen jotzen duten lekuan jar ditzaten.

Horrez gain, adierazi du, Batzordean adostu zen moduan, Berdintasuneko teknikariak adierazpen bat idatzi duela, Batzordean aipatutako gidalerroak kontuan hartuta. Adierazpena zinegotzi guztiei igorri zitzaion deialdiarekin batera, eta hori da hemen bozkatuko dutena.

Nerea andreak (BILDU) esan du kasu honek erakusten duela talde politikoak ados jar daitezkeela, denen ekarpenak kontuan hartzen badira. Sentsibilitateak bateratu dituzte, egun honi bide eman zioten gertakari historikoak gogoratu dituzte eta kontuan izan dute behe-klasekoek jasan behar duten estigma bikoitza. Era berean, Udalak arazo horiek jasaten dituzten pertsonen laguntzeko agindua jaso da.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) eskerrak eman dizkie udal-taldeei adostasun batera iristeko ahalegina egiteagatik, norberaren iritziz batzuk alde batera utzi eta deklarazio bateratu bat egiteko.

Hori oso garrantzitsua da honakoa bezalako gai sentikorretan; halakoetan batera lan egin dezakete, eta hala egin behar dute.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udaltzako kideek aho batez onetsi dute.

Udaltzak, bertaratutako kide guztien adostasunez, honako erakunde-adierazpen hau onetsi du:

“EKAINAK 28 – SEXU-ASKATASUNAREN ALDEKO NAZIOARTEKO EGUNA

1969ko ekainaren 28an Stonewall-en (New York) izandako istiluek inflexio-puntu bat markatu zuten LGTBI kolektiboarentzat. Gaur, nahiz eta gizarte-kontzientzia gero eta handiagoa den, datuek berresten dute gorroto-diskurtsoen icebergaren tontorrean sexu-orientazioaren eta identitatearen, edota genero-adierazpenaren ondoriozko diskriminazioa dagoela.

Hala, ekainaren 28an, Sexu Askatasunaren aldeko Nazioarteko Eguna ospatzen dugu, hain zuzen ere, gure sexualitatea askatasun osoz bizitzeko eskubidea aldarrikatu eta ospatzen dugu, giza eskubideetan oinarritutako gizartearen sustatzen duelako. Horrexegatik, gure esker beroenak eman nahi dizkiogu LGTBIQ kolektiboari.

Lesbianismoak, homosexualitateak, transexualitateak eta, azken finean, sexualitatearen aniztasuna aldarrikatzen duten kolektiboek sexualitatearen mugak zabaltzen eta aberasten dituzte.

Nahiz eta asko izan askatasunerako eragile sozialek lortutako aurrerapen eta eskubideak, bide luzea daukagu egiteko oraindik. Sexua, generoa eta sexualitatea bakoitzaren nortasunaren elementu oso garrantzitsuak dira, eta askatasun osoz egin beharreko aukera izan behar du. Jokaera jakin batzuen inposizio sozialak, alde batetik, maskulinitate- eta feminitate-eredu estereotipatu eta sexistak gauzatzen ditu, eta bestetik, gorrotoa eta indarkeria sustatzen du parametro horietatik kanpo dauden jokabideen kontra.

Gainera, azken urteotan, LGTBIQ kolektiboek helburuok lortu diren herrialdeetan uste oker bat sortu da: berdintasunezko gizarte batean bizi garela. Ondorioz, herrialde horiek alde batera utzi dute LGTBIQ kolektiboek eskubideen aldeko borroka, egin beharreko guztia egin dagoela pentsatuz. Horren erakusgarri da, esaterako, ekainaren 28a aldarrikapen eta borrokarako eguna izan zela garai batean eta, kasu askotan, negoziarako egun bilakatu dela, patriarkatuak sorrarazi dituen eta klaseen arteko desorekari eusten dioten estereotipo eta topikoak ardatz hartuta.

Homosexual, lesbiana, transexual edo bisexualek bizi dituzten egoerak ez dira beti berdinak, ezta beren jatorriaren, bizilekuaren, adinaren, egoera ekonomikoaren eta nortasunaren arabera jasaten dituzten eraso eta bazterkeriak ere. Esaterako, udalerrri txikietan zailagoa da beren sexualitatea modu askean bizitzea LGTBIQ kolektiboentzat.

Hori guztia kontuan izanda, Aiarako Udalak honako konpromiso hauek hartu ditu:

1. Askatasun sexuala txertatzea berdintasun-politikan.

2. Gure herrian gertatzen diren transfobia-, lesbofobia- eta homofobia-kasuak jasotzea, eta dagozkien arretarako baliabideetara bideratzea. Horrez gain, halako kasuren bat gertatzen denean, Udalak aktiboki hartuko du parte salaketan, baldin eta biktimarekin hala adosten bada.

3. Herritarrak kontzientziazteko eta sentsibilizatzeko kanpainak egitea.

4. Sexu-askatasunaren alde lan egiten duten elkarteei lagundu eta gure babesa eskaintzea, bereziki LGTBIQ kolektiboek eta talde feministek.

5. Sexu Askatasunaren aldeko Nazioarteko Eguneko bandera jartzea udaletxeko balkoian, maiatzaren 17ko eta ekainaren 28ko sentsibilizazio- eta kontzientziazio-kanpainen barruan.

Amaitzeko, herritarrak gonbidatu nahi ditugu antolatutako ekintzetan parte hartzera eta askatasun osoz bizitzera euren aniztasun sexuala. Era berean, gure miresmen eta elkartasun osoa helarazi nahi diegu ekainaren 28an Sexu Askatasunaren aldeko Nazioarteko Eguna ospatu ahal izateko lan egin duten guztiei.

5.- Udalbatza Osoari organo kontu-hartzailearen txostenaren berri ematea, Diruzaintzako soberakinaren erabilerari dagokionez aurrekontu-egonkortasuna ez betetzearen ondorioetarako.

Idazkariak txostenaren edukia azaldu du. Bertaratutako zinegotziek ez dute gaiari buruzko ezer esan, eta jakinaren gainean geratu dira.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Diruzaintzako soberakina erabiltzeko beharra, 2016ko likidazioak sortu dituen gastu orokorretarako, gastu-partidak sortzeko edo dagoeneko daudenak handitzeko, saihetsezinak diren eta 2018. urteko aurrekontuari itxaron ezin dioten gastuak ordaintzeko.

IKUSI DA.- 2017ko ekainaren 8ko idazkari kontu-hartzailearen txostena, gastuak gastu orokorretarako Diruzaintzako soberakinarekin finantzatzeagatiko egonkortasuna betetzeari buruzkoa.

AINTZAT HARTU DIRA.- Aurrekontu eta Finantza Egonkortasunari buruzko Foru Arauaren (abenduariaren 13ko 38/2013 Foru Araua) 7.1 eta 7.3 artikulua, 17/2014 Foru Arauak emandako idazketan.

Udalbatza Osoa aurrekontu-egonkortasuna ez betetzearen ondorioz 2017ko ekainaren 8an organo kontu-hartzaileak egin duen txostenaren, Diruzaintzako soberakinaren erabilerari buruzkoaren, jakinaren gainean geratu da.

6.- Onestea, bidezkoa bada, “Udalbatzaren kreditu gehigarrien 3/2017 zenbakiko espedientea”, kredituak aldatzekoa.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Diruzaintzako soberakinaren zati bat erabili behar dela, Gastu Orokorrak atalekoa eta 2016ko likidazioak emandakoa. Xedea da gastuen partida bat sortzea ezinbestekoak diren eta 2017ko aurrekontua egin arte itxaron ezin duten ordainketak egiteko. Horretarako, aplikazio batzuk zabaldu egingo dira eta beste batzuk sortu.

IKUSI DA.- Kontu-hartzaileak eginiko txostena, aurrekontu-egonkortasuna ez betetzeari buruzkoa, 17/2014 Foru Arauak aldatzen duen abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauan (Arabako tokiko erakundeen aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa) jasotakoari jarraituz. Txosten hori Udaltzari erakutsi zaio, kreditu-aldaketa honekin batera.

AINZAT HARTU DA.- Honako hauetan xedatutakoa: 3/2004 Foru Araua, otsailaren 9koa, Arabako Lurralde Historikoko tokiko erakundeen aurrekontuei buruzkoa; 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore publikoko kontratuei buruzko Legearen testu bategina onesten duena; eta 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena.

Udaltzak, aho batez, hau **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Onestea honako kreditu gehigarri hauek:

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA (€)
330.481.004	KULTURA-ELKARTEENTZAKO DIRU-LAG., JARDUERAK EGITEKO	4.000,00 €
943.434.000	UDALERRIKO ADMINISTRAZIO-BATZENTZAKO FINANTZAZIO-TRANSFERENTZIA	23.654,70 €
334.481.001	LLANTENO ARANEKO ARTE-ESKOLARENTZAKO DIRU-LAG. (HITZARMENA)	6.000,00 €
942.421.000	AIARAKO KUADRILLA: GASTU OROKORRAK	1.362,20 €
335.421.000	AIARAKO KUADRILLA: NORMALKUNTZARAKO TEKNIKARIA	595,19 €
334.421.000	AIARAKO KUADRILLA: GIZARTE ETA KULTURAKO TEKNIKARIA	316,18 €
439.421.000	AIARAKO KUADRILLA: SUSTAPEN EKONOMIKOA	42,78 €
170.421.000	AIARAKO KUADRILLA: INGURUMENEN TEKNIKARIA	84,46 €

3322.421.000	AIARAKO KUADRILLA: ARTXIBOAREN KUDEAKETA	113,37 €
230.421.000	AIARAKO KUADRILLA: BERDINTASUNeko TEKNIKARIA	2.644,44 €

GUZTIRA: 38.813,32€

Zenbateko hori jarraian zerrendatutako baliabideekin finantzatu da; beraz, espedientea orekatuta dago eta ez da defizitik sortu:

A. Areagotu beharreko diru-sarrerren partidak edo erabili beharreko Diruzaintzako soberakina:

<u>Diru-sarrerren partida</u>	<u>Izena</u>	<u>Zenbatekoa (€)</u>
87001	DIRUZAINZAKO SOBERAKINA, GASTU OROKORRETARAKO	38.813,32 €
	GUZTIRA	38.813,32 €

Onetsitako kreditu gehigarrien zenbateko osoa horiek finantzatzeko erabiltzen diren diru-sarrera guztien parekoa da.

Bigarrena.- Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, eta espediente hau jendaurrean jartzea, 15 egun baliodunetz, interesdunek aztertu eta egokituz jotzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten.

Hirugarrena.- Erreklamaziorik egon ezean, erabaki hau behin betikotzat jotzea. Erreklamaziorik badago, beste erabaki bat egin beharko da, horiek onartu edo ukatuz.

Laugarrena.- Erabakia behin betikotzat jotzea, arauk ezarritako moduan eta epean.

7.- Onartzea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Buru Gaixotasuna duten Pertsonen eta Senideen Aiarako Elkartearen (ASASAM) arteko lankidetzaz hitzarmena, 2017. urterako.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- ASASAM irabazi asmorik gabeko elkarteak Aiara eskualdean egiten duen lana, udalerriko hainbat pertsonari zuzenean mesede egiten diena, sustatzeko eta elkarrekin lan egiteko udal-interesa.

IKUSI DA.- ASASAM elkartearen eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzaz-hitzarmena, aipatutako elkartearen urteko ekintzen gastuen zati bati diru-laguntza ematekoa.

IKUSI DA.- 2017ko ekainaren 13ko Gizartea eta Osasuna, Berdintasuna eta Immigrazioa Informazio Batzordearen aldeko irizpena.

AINZAT HARTU DA.- 2017ko aurrekontuan hitzarmen honek eragiten dituen gastuei aurre egiteko behar besteko kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Udalbatzak, aho batez, hau **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalaren eta Buru Gaixotasuna duten Pertsonen eta Senideen Aiarako Elkartearen (ASASAM) arteko lankidetzaz-hitzarmena, 2017. urterako.

Bigarrena.- Alkateari hitzarmen hori sinatzeko ahalmena ematea.

Hirugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea ASASAMi. Hitzarmenaren bi kopia erantsiko dira, aleetako bat behar bezala sinatuta itzul dezan.

8.- Onestea, bidezkoa bada, Udalaren eta Menagaraiko Amor Misericordioso ikastetxearen arteko lankidetzaz-hitzarmena, 2017. urterako.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Menagaraiko Amor Misericordioso ikastetxeak bere zentroan hartutako neskekin egiten duen eginkizun soziala eta Udalak lan hori sustatzeko duen interesa.

IKUSI DA.- Aiarako Udalak Amor Misericordioso ikastetxearekin eginiko lankidetzaz-hitzarmena, hain zuzen ere, aipatu zentroak bere ikasleekin abiarazten dituen ekimenak eta ekintzak diruz laguntzeko.

IKUSI DA.- 2017ko ekainaren 13ko Gizartea eta Osasuna, Berdintasuna eta Immigrazioa Informazio Batzordearen aldeko irizpena.

AINZAT HARTU DA.- 2017ko aurrekontuan hitzarmen honek eragiten dituen gastuei aurre egiteko behar besteko kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Udalbatzak, aho batez, hau **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalak Amor Misericordioso ikastetxearekin eginiko lankidetzaz-hitzarmena, aipatu zentroak bere ikasleekin abiarazten dituen ekimenak eta ekintzak diruz laguntzeko, 2017. urterako.

Bigarrena.- Alkate-udalburuari hitzarmen hori sinatzeko ahalmena ematea.

Hirugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea Amor Misericordioso ikastetxeari. Hitzarmenaren bi kopia erantsiko dira, aleetako bat behar bezala sinatuta itzul dezan.

9.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta “Valle de Llanteno” kultur elkartearen arteko lankidetzahitzarmena, 2017. urterako.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Valle de Llanteno arte-eskolak urtero-urtero Aiara udalerrian egiten duen lan kulturala sustatzeko eta laguntzeko udal-interesa.

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta Valle de Llanteno arte-eskolaren arteko lankidetzahitzarmena, marrazketa, pintura, zeramika eta egur-taillako diziplinak lantzeak dakartzan gastuen zati bat ordaintzeko diru-laguntza emateko. Zehazki, diru hori irakasleak kontratatzeko eta ikastaroak emateko behar diren materialak erosteko erabiliko da.

IKUSI DA.- 2017ko ekainaren 13ko Gizartea eta Osasuna, Berdintasuna eta Immigrazioa Informazio Batzordearen aldeko irizpena.

AINZAT HARTU DA.- 2017ko aurrekontuan hitzarmen honek eragiten dituen gastuei aurre egiteko behar besteko kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Udalbatzak, aho batez, hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalaren eta Valle de Llanteno arte-eskolaren arteko lankidetzahitzarmena, marrazketa, pintura, zeramika eta egur-taillako diziplinak lantzeak dakartzan gastuen zati bat ordaintzeko. Zehazki, diru hori irakasleak kontratatzeko eta ikastaroak emateko behar diren materialak erosteko erabiliko da.

Bigarrena.- Alkateari hitzarmen hori sinatzeko ahalmena ematea.

Hirugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea Valle de Llanteno arte-eskolari. Hitzarmenaren bi kopia erantsiko dira, aleetako bat behar bezala sinatuta itzul dezan.

10.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Eskutxiko Ahotsak elkartearen arteko lankidetzahitzarmena, 2017. urterako.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Aiarako Udalak musika eta musikaren erabilera sustatu nahi dituela esparru guztietan. Ikusi da, halaber, Eskutxiko Ahotsak elkarteak ere hori sustatu nahi duela.

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta Eskutxiko Ahotsak Elkartearen arteko lankidetzahitzarmena, musika sustatzeko egiten diren ekimen eta jarduerak bultzatzeko.

IKUSI DA.- Euskara, Hezkuntza, Kultura, Kirola eta Gazteria Informazio Batzordeak 2017ko ekainaren 13an emandako aldeko irizpena.

AINTZAT HARTU DA.- 2017ko udal-aurrekontuan hitzarmen honek eragiten dituen gastuei aurre egiteko behar besteko kreditu egokia dagoela.

Udalbatzak, aho batez, hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalaren eta Eskutxiko Ahotsak Elkartearen arteko lankidetzeta-hitzarmena, urteko jarduerak eta jarduera martxan egoteak eragiten dituen gastuak diruz laguntzeko, 2017. urterako.

Bigarrena.- Alkate-udalburuari hitzarmen hori sinatzeko ahalmena ematea.

Hirugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea Eskutxiko Ahotsak elkarteari. Hitzarmenaren bi kopia erantsiko dira, aleetako bat behar bezala sinatuta itzul dezan.

11.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Asociación Amigos de Etxaurren-Etxaurreneko Lagunak Elkartearen arteko lankidetzeta-hitzarmena, 2017. urterako.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Aiarako Udalak udalerrian antolatzen diren kultura- eta jai-adierazpenak sustatu eta babesteko duen interesa.

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta Asociación Cultural Amigos de Etxaurren-Etxaurreneko Lagunak Elkartearen arteko lankidetzeta-hitzarmenaren xedea dela irailean Etxaurreneko ermitaren inguruan antolatzen diren jaiak sustatu eta indartzea.

IKUSI DA.- Euskara, Hezkuntza, Kultura, Kirola eta Gazteria Informazio Batzordeak 2017ko ekainaren 13an emandako aldeko irizpena.

AINTZAT HARTU DA.- 2017ko udal-aurrekontuan hitzarmen honek eragiten dituen gastuei aurre egiteko behar besteko kreditu egokia dagoela.

Udalbatzak, aho batez, hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalaren eta Asociación Cultural Amigos de Etxaurren-Etxaurreneko Lagunak Elkartearen arteko lankidetzeta-hitzarmena, xede duena urtero, irailean, Etxaurreneko ermitaren ondoan antolatzen diren jaiak sustatu eta indartzea, 2017 ekitaldirako.

Bigarrena.- Alkate-udalburuari hitzarmen hori sinatzeko ahalmena ematea.

Hirugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea Asociación Cultural Amigos de Etxaurren-Etxaurreneko Lagunak Elkarteari. Hitzarmenaren bi kopia erantsiko dira, aleetako bat behar bezala sinatuta itzul dezan.

12.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalak, urtero egiten diren likidazioen arabera, Aiarako Kuadrillari egin beharreko ekarpena egiteko konpromisoa, Kuadrillari eskuordetu zaion hiri-hondakin solidoak biltzeko eta tratatzeko zerbitzuarengatik.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- 2016ko uztailaren 21ean Udalbatzak erabaki zuela Aiarako Kuadrillari eskuordetzea hiri-hondakin solidoak biltzeko eta tratatzeko zerbitzua emateko eskumenak.

AINTZAT HARTU DA.- Eskuordetze horrekin bat etorriz, Aiarako Udalak finantzatuko duela zerbitzu horren dagokion zatia, Aiarako Kuadrillak eginiko likidazioari jarraikiz. Likidazio hori egiteko, Aiara udalerrian sortutako hondakin-tonen proportzioa kalkulatu da, Kuadrillak kudeatutako tona guztiakin alderatuta, eta erakunde horrek zerbitzu honetarako jaso ditzakeen diru-sarrerak kenduta.

AINTZAT HARTU DA.- Aiarako Kuadrilla zerbitzua lizitatzeko espedientea prestatzen ari dela.

AINTZAT HARTU DA.- Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumena Informazio Batzordeak 2017ko ekainaren 13an emandako aldeko irizpena.

Udalbatzak, bertaratu diren kideen adostasunez, hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Aiarako Udalak hitzematzen du Aiarako Kuadrillak hiri-hondakin solidoak biltzeko eta tratatzeko zerbitzuarengatik likidatzen dituen zenbatekoak ordainduko dituela urtero, eta Kuadrillari egindako eskuordetzeak indarrean irauten duen urte guztietan. Zenbateko hori Udalak sortutako hondakin-tonen arabera izango da, Kuadrillak zerbitzu horiek gauzatzeko jaso izan ditzakeen diru-sarrerak kenduta.

Horretarako, Udalak hitzematzen du urte bakoitzeko udal-aurrekontu orokorretan dagokion aurrekontu-aplikazioa esleituko duela, konpromiso honetarako kreditu nahikoa eta egokiarekin.

Bigarrena.- Erabaki hau jakinaraztea Aiarako Kuadrillari, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondoreak izan ditzan.

13.- Onestea, bidezkoa bada, “Zerbitzu publikoen eta administrazio, kultura, kirol, gizarte, gizarte-ongizate eta pertsona eta ondasunen zaintza-zerbitzuak emateagatiko eta kirol-instalazioak erabiltzeagatiko tasak araupetzen dituen ordenantzaren” I. eranskinaren aldaketa.

Idazkariak aipatu du igerilekuetara sartzeko tasa 2018. urtetik aurrera ezarriko dela, denboraldi honetan ezin baita ezarri dagoeneko.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Aho batez onetsi da.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Udalbatzak “Zerbitzu publikoen eta administrazio, kultura, kirol, gizarte, gizarte-ongizate eta pertsona eta ondasunen zaintza-zerbitzuak emateagatiko eta kirol-instalazioak erabiltzeagatiko tasak araupetzen dituen ordenantza” aldatzeko beharra ikusi duela.

IKUSI DA.- Ogasuna, Sustapen Ekonomikoa eta Enplegua Informazio Batzordeak eta Kontuen Batzorde Bereziak 2017ko ekainaren 13an emandako aldeko irizpena.

Udalbatzak, aho batez, hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Hasiera batean onestea “Zerbitzu publikoen eta administrazio, kultura, kirol, gizarte, gizarte-ongizate eta pertsona eta ondasunen zaintza-zerbitzuak emateagatiko eta kirol-instalazioak erabiltzeagatiko tasak araupetzen dituen ordenantzaren” honako aldaketa hauek:

1.- I. eranskineko tarifa batzuk aldatu dira, eta honela geratu dira:

I. ERANSKINA

KIROL-INSTALAZIOAK ERABILTZEA: UDAL-IGERILEKUAK

Erabiltzaileen abonamenduen kuotak eta eguneko sarrerak.

TARIFA:

UDAKO ABONAMENDUA (BAZKIDEAK)

1.- UDALERRIAN ERROLDATUTAKO PERTSONAK

- | | |
|---|---------|
| a) Familia-abonamendua (14 urtera arteko –beteta– seme-alabak), familia ugarientzat izan ezik | |
| 30,00 € | |
| b) Banakako abonamendua, 5-17 urte bitartekoentzat (beteta) | |
| 10,00 € | |
| c) Banakako abonamendua, 18 urtetik gorakoentzat (beteta) | 20,00 € |
| d) 65 urtetik gorakoentzat (beteta) | 5,00 € |
| e) 5 urtetik beherakoentzat | Doan |

2.- UDALERRIAN ERROLDATU GABEKO PERTSONAK

- | | |
|--|--|
| a) Familia-abonamendua (14 urtera arteko –beteta– seme-alabak) | |
| 60,00 € | |

a) Banakako abonamendua, 5-17 urte bitartekoentzat (beteta)	20,00 €	
c) Banakako abonamendua, 18 urtetik gorakoentzat (beteta)		35,00€
d) 65 urtetik gorakoentzat (beteta)		11,00€
e) 5 urtetik beherakoentzat		Doan

EGUNEKO SARRERAK:

3.- LANEGUNETAKO TARIFAK

a) 5 urtetik 17 urtera bitartekoentzat	1,80 €
b) 18 urtetik gorakoentzat (beteta)	3,00 €
c) 65 urtetik gorakoentzat (beteta)	1,30 €
e) 5 urtetik beherakoentzat	Doan

4.- JAIEGUNETAKO TARIFAK

a) 5 urtetik 17 urtera bitartekoentzat	2,70 €
b) 18 urtetik gorakoentzat (beteta)	4,00 €
c) 65 urtetik gorakoentzat (beteta)	1,50 €
e) 5 urtetik beherakoentzat	Doan

2.- “Salbuespenak” atalean hirugarren bat gehitu da, eta honela geratu da:

3.- Ez dute kuota edo sarrerarik ordaindu beharko igerilekura Udalak antolatutako jarduerak egitera joaten direnek.

3.- “Hobariak” atalean, familia ugarietzako hobariaren zenbatekoa eta baldintzaren bat aldatu da, eta bigarren hobari bat gehitu da; atala honela idatzita geratu da:

Hobariak:

1.- Aiarako Udalean erroldatuta dauden eta bazkide-txartela duten erabiltzaileek, familia ugariko kideak badira eta hori egiaztatzeko titulua aurkezten badute, % 50eko hobaria izango dute abonatu-kuotan.

Egiaztagiria:

- Familia ugariaren titulua, familia-unitatea osatzen duten kide guztiak jasotzen dituen; urtero aurkeztu beharko da.

2.- Eskola edo kirol taldeek, edo 20 kide baino gehiagoko elkarteetako kideek, % 25eko hobaria izango dute ordaindu beharreko tarifyan.

Bigarrena.- Jendaurrean jartzeko 30 egun baliouduneko epea irekitzea, erabakia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, edozein interesdunek aurkeztu ahal

izango ditu bidezkotzat jotzen dituen alegazioak, eta Udalbatzak aztertuko ditu horiek, bidezkoa bada behin betiko onesteko. Hasierako onespeneraren inguruko alegaziorik aurkezten ez bada, hasiera batean onetsitako erabakia behin betikotzat jo eta testu osoa ALHAOn argitaratuko da.

Hirugarrena.- Erabaki hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.- Ordenantzaren aldaketa hauek ordenantzaren testu osoa ALHAOn argitaratzen denean sartuko dira indarrean.

14.- Onestea, bidezkoa bada, “Zerbitzu publikoen eta administrazio, kultura, kirol, gizarte, gizarte-ongizate eta pertsona eta ondasunen zaintza-zerbitzuak emateagatiko eta kirol-instalazioak erabiltzeagatiko tasak araupetzen dituen ordenantzan” II. eranskin bat gehitzea: “Kultura eta Kirol Arloak antolatutako ikastaro eta tailerrak egiteko zerbitzua emateagatiko tasa”.

Lauren jaunak (BILDU) esan du badaudela tasak ordaindu ezin dituzten pertsonak, arrazoi ekonomikoak direla medio. Uste dute halako egoerei erantzuteko laguntza batzuk arautu daitezkeela. Datozen batzordeetan horren inguruko zerbait aurkeztuko dute, eztabaida dadin.

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Udalbatzak “Zerbitzu publikoen eta administrazio, kultura, kirol, gizarte, gizarte-ongizate eta pertsona eta ondasunen zaintza-zerbitzuak emateagatiko eta kirol-instalazioak erabiltzeagatiko tasak araupetzen dituen ordenantza” aldatzeko beharra ikusi duela. Hain zuzen ere, egokitzen jotzen du beste eranskin bat gehitzea, urte osoan zehar Kultura eta Kirol Arloak antolatzen dituen ikastaro eta tailerren bidez Udalak biltzen dituen tasak arautzeko.

IKUSI DA.- Ogasuna, Sustapen Ekonomikoa eta Enplegua Informazio Batzordeak eta Kontuen Batzorde Berezia 2017ko ekainaren 13an emandako aldeko irizpena.

Udalbatzak, aho batez, hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Hasiera batean onestea, bidezkoa bada, “Zerbitzu publikoen eta administrazio, kultura, kirol, gizarte, gizarte-ongizate eta pertsona eta ondasunen zaintza-zerbitzuak emateagatiko eta kirol-instalazioak erabiltzeagatiko tasak araupetzen dituen ordenantzan” II. eranskin bat gehitzea: “Kultura eta Kirol Arloak antolatutako ikastaro eta tailerrak egiteko zerbitzua emateagatiko tasa”. Honela geratuko da:

II. ERANSKINA

KULTURA ETA KIROL ARLOAK ANTOLATUTAKO IKASTARO ETA TAILERRAK EGITEKO ZERBITZUA EMATEAGATIKO TASA.

TARIFA:

1.- Tasaren zenbatekoa kalkulatzeko, bi zenbateko hartuko dira kontuan:

- *Urtean 30 orduko ikastaroak emateagatik: urtean 37,50 €.*
- *Urtean 45 orduko ikastaroak emateagatik: urtean 56,25 €.*
- *Urtean 60 orduko ikastaroak emateagatik: urtean 75,00 €.*
- *Urtean 98 orduko ikastaroak emateagatik: urtean 125,50 €.*

2.- Tasak osorik sortuko dira Udalak ematea erabakitzen duen ikastaro bakoitza hasi aurretik. Ikastaro bat emateko, udalerrian erroldatutako 8 pertsonak egon beharko dute izena emanda, gutxienez.

3.- Tasari dagokion zenbatekoa banku-helbideratze bidez ordainduko da, erabiltzaileek (edo, adingabeak direnean, haien guraso edo legezko zaintzaileek) eskaeran adierazitako kontu-zenbakian.

Ordainketa bakarra egingo da eta ez da itzuliko ikastaroa hasi ondoren.

4.- Leku libreak badaude, ikasle berriek hasi ahal izango dute edozein ikastarotan, baita dagoeneko hasita badago ere. Kasu horretan matrikularen zenbateko osoa ordaindu beharko dute, edo erdia, ikasturteko bigarren lauhilekoan hasten badira.

HOBARIAK:

1.- Aurreko ataleko lehen puntuan zehaztutako tasak ordaintzeko hobaria emango zaie langabezian daudenei edo ikasle-txartela dutenei.

Langabezia- edo ikasle-txartela aurkeztu beharko da matrikula formalizatzeko unean.

Hauek izango dira hobariarekin ordaindu beharreko tasak:

- *Urtean 30 orduko ikastaroak emateagatik: urtean 33,00 €.*
- *Urtean 45 orduko ikastaroak emateagatik: urtean 49,50 €.*
- *Urtean 60 orduko ikastaroak emateagatik: urtean 66,00 €.*
- *Urtean 98 orduko ikastaroak emateagatik: urtean 107,80 €.*

EZ ORDAINTZEA:

Tasa horiek ez ordaintzeagatik sortutako zorrak premiamendu-prozedura administratiboaren bidez eskatuko dira.

AZKEN XEDAPENA:

Kultura eta Kirol Arloak antolatutako ikastaro eta tailerrak egiteko zerbitzua emateagatiko tasa arautzen duen II. eranskin hau argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta hala egongo da aldatzea edo baliogabetzea erabakitzen den arte.

EGINBIDEA.-

Udal honek 2017ko (e)(a)n eginiko ohiko bilkuran onetsi zuen, hasiera batean, eranskin hau “Zerbitzu publikoen eta administrazio, kultura, kirol, gizarte, gizarte-ongizate eta pertsona eta ondasunen zaintza-zerbitzuak emateagatiko eta kirol-instalazioak erabiltzeagatiko tasak araupetzen dituen ordenantzan” sartzeari, eta 30 egunez jendaurrean jarri zen, iragarki taulan eta (e)ko ALHAOn (zk.).

Bigarrena.- Jendaurrean jartzeko 30 egun baliouduneko epea irekitzea, erabakia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, edozein interesdunek aurkeztu ahal izango ditu bidezkotzat jotzen dituen alegazioak, eta Udalbatzak aztertuko ditu horiek, bidezkoa bada behin betiko onesteko. Hasierako onespeneraren inguruko alegaziorik aurkezten ez bada, hasiera batean onetsitako erabakia behin betikotzat jo eta testu osoa ALHAOn argitaratuko da.

Hirugarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.- Ordenantzaren aldaketa hauek ordenantzaren testu osoa ALHAOn argitaratzen denean sartuko dira indarrean.

15.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udaleko LPZ aldatzea, administrari-lanpostuaren zuzkidura (plaza) bat sortzeko. Plaza hori barne-sustapen bidez beteko da, 2. hizkuntza-eskakizuna esleituko zaio (LPZ aldatzea onesten den eguneko derrigortasun-datarekin), eta lanpostu-mailako osagarria 19 izango da eta osagarri espezifikoak 16.826,60 euro.

Iraida andreak (AB) esan du aldaketa honekin 4 administrari egongo direla Udalean, eta, horrenbestez, gogorarazi du udalerriko Administrazio Batzek administrazio-laguntza emateko eskatu zutela.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du ez dela langile bat gehiago egongo; funtzionario berak egongo dira, zeregin berak egiten. Gobernu taldearen asmoa da ematen diren zerbitzuak hobetu eta areagotzea, baina horretarako modua aurkitu behar da.

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Udalbatzak, 2017ko maiatzaren 4ko erabaki bidez, hasiera batean onetsi zuela 2017 ekitaldiko aurrekontu orokorra, eta, horrekin batera, Aiarako Udaleko 2017rako lanpostu-zerrenda ere bai.

IKUSI DA.- 2017ko ekainaren 14an, LPZ hori argitaratu zela 67 zenbakiko ALHAOn, 2017ko aurrekontu orokorrarekin batera.

AINTZAT HARTU DA.- Udalak administrari-lanpostuaren zuzkidura (plaza) berri bat sortzeko asmoa duela, eta barne-sustapen bidez beteko duela.

AINTZAT HARTU DA.- Ogasuna, Funtzio Publikoa eta Barne Araubidea Informazio Batzordeak eta Kontuen Batzorde Bereziak 2017ko ekainaren 13an emandako aldeko irizpena.

AINTZAT HARTU DA.- Aipatutako plazak dagokion aurrekontu-zuzkidura duela, eta ez dela soldata-masa areagotu 2016aren aldean.

AINTZAT HARTU DA.- Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea (ekainaren 6ko 6/1989 Legea).

Udalbatzak, aho batez, hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Hasiara batean onestea Aiarako Udaleko lanpostu-zerrendaren aldaketa; zehazki, honela:

- Administrari-lanpostuaren zuzkidura (plaza) berri bat sortzea; 2. hizkuntza-eskakizuna izango du esleituta (LPZ aldatzea onesten den eguneko derrigortasun-datarekin), eta lanpostu-mailako osagarria 19 izango da eta osagarri espezifikoa 16.826,60 euro.

Bigarrena.- Sortzen den plaza barne-sustapen bidez betetzeko gordeko da, C-2 taldeko udal-langileekin zuzen; horretarako, une oro errespetatuko dira langile berriak kontratatzeari eta gastu publikoaren euspenari buruzko lege-xedapenak.

Hirugarrena.- Espedientea 15 egunez jendaurrean jartzea, ALHAOn iragarkia argitaratuta, nahi duenak erreklamazioak egin ditzan.

Laugarrena.- Erabaki hau behin betikotzat hartzea, erreklamaziorik egon ezean.

Bosgarrena.- Behin betiko erabakia argitaratzea, arauk ezarritako moduan eta epean.

16.- Onestea, bidezkoa bada, Eusko Jaurlaritzari Luiandoko Erabilera Anitzeko Eraikineko lehenengo finkaren titulartasuna doan lagatzea; finka horretan beheko solairuko lokal bat dago, horizontalki bereizia, eta Osakidetza osasun-zentroa jartzeko erabiliko da.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Aiarako Udalak Luiaondo udalerriko La Torre 17 helbidean dagoen eraikin bat berritzeko lanak egin dituela, eta beheko solairua mediku-kontsultategia jartzeko prestatu duela.

IKUSI DA.- 2016ko irailaren 22an onetsi zela eraikin horren banaketa horizontala; hala, bertako elementuetako bat modu independentean aprobeitza zitekeen: osasun-zentroa jartzeko beheko solairuko lokala.

AINTZAT HARTU DA.- Udal honek interesa duela Eusko Jaurlaritzako beheko solairuko lokal horren titulartasuna doan lagatzeko, osasun-zentro bat jartzeko.

AINTZAT HARTU DA.- Toki Erakundearen Ondasunen Araudia onesten duen Errege Dekretuaren (ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua) 109. artikuluan eta hurrengoetan zehaztutakoa, eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/85 Legea) 47/2 ñ) artikuluan zehaztutakoa.

AINTZAT HARTU DA.- 2017ko ekainaren 19ko Idazkaritzaren txostena.

AINTZAT HARTU DA.- Lagako den eraikinaren xedeak Aiarako herritar guztien onurarako direla.

Berlaratutako Udalbatza Osoko kideek (Udalbatza osatzen duten 11 kideetatik 10), aho batez, hau **ERABAKI DUTE**:

Lehenengoa.- Adieraztea ez dela aurreikusten Luiandoko La Torre 17 helbideko eraikinaren beheko solairuan dagoen lokala udal-zerbitzurik emateko erabiltzea, gutxienez datozen hamar urteetan.

Bigarrena.- Osasun-zentroa (mediku-kontsultategia) jarriko den beheko solairuaren titulartasuna Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioari doan lagatzeko espedientea abiaraztea, mantentze-gastuez hura ardura dadin.

Hirugarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, hogeitun egunez, ALHAOn iragarkia jarrita, interesdunek egokitzen jotzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

Laugarrena.- Epea igarotakoan, alegaziorik egon bada, horiek Udalbatzak ebatziko ditu eta bidezkoa bada ondasuna lagatzeko ebazpena ere hark emango du.

17.- Udaleko Kontu Hartzaitzaren barne-kontrolari buruzko urteko txostenaren berri ematea (2016 ekitaldia).

Lauren jaunak (BILDU) zorionak eman dizkio idazkari kontu-hartzaileari egin duen txostenarengatik, argia eta erabakitzailea delako. Ikusi dute zenbait akats egon direla, baina dagoeneko konpontzeko bidean daude.

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan eta Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

18.- Alkatetza-dekretu hauen berri ematea:

- **Erref.- 196/17.- Y.A.O.Z.-** Udal Artxibategi Historikoko informazioa eskuratzeko baimena ematea.
- **Erref.- 197/17.- I.B.B.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, zoladura konpontzeko eta hormigoizko zola jartzeko Luiandoko partzela batean.
- **Erref.- 198/17.- M.B.A.D - V.G.M.-** Udal-lizentzia eta obrekin hasteko baimena ematea, etxebizitza familiabakar bat eraikitzeke Olabezarren dagoen partzelan.
- **Erref.- 199/17.-** Onestea F/2017/5 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.
- **Erref.- 200.- J.A.S.G.-** Obrarako udal-lizentzia ematea eta obrekin hasteko baimena emateko agiri gehiago eskatzea, etxebizitza bateko estalkia birgaitzeko.
- **Erref.- 201/17.- J.A.S.G.-** Fidantza eskatzea, Llantenoiko etxebizitza baten estalkia birgaitzeko obran sortutako eraikuntza- eta eraipen-hondakinak ondo kudeatzen direla bermatzeko.
- **Erref.-202/17.- DORREKO ESKUPILOTA ELKARTEA.-** 2016ko diru-laguntza justifikatzeko agiriak eskatzea.
- **Erref.-203/17.-** Bono-taxi 2017 programako laguntzen ebazpena onestea.
- **Erref.- 204/17.- Murgako industrialdeko jabekideen erkidegoa.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, zutargiak konpontzeko Murgako industrialderako sarreretan.
- **Erref.- 205/17.- V.R.M.-** Obrarako udal-lizentziaren espedientearekin loturiko agiri gehiago aurkezteko eskatzea.
- **Erref.- 206/17.- ITZALDE ABESBATZA.-** Hasiera ematea 2016ko diru-laguntza itzultzeko prozedurari.
- **Erref.- 207/17.- J.C.A.R.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Luiandoko etxebizitza baten kanpoaldeko zurik aldatzeko.
- **Erref.- 208/17.- L.A.M.-** Obrarako udal-lizentziaren espedientearekin loturiko agiri gehiago aurkezteko eskatzea.
- **Erref.- 209/17.- GAROBEL MENDI TALDEA.-** 2016ko diru-laguntzako justifikatu gabeko zenbatekoa itzultzeko eskatzea.
- **Erref.- 210/17.- P.M.I.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Luiandoko etxebizitza baten kanpoaldeko zurak aldatzeko.
- **Erref.- 211/17.- LUIAONDOKO LEKUBATXE BOLA JOKOKO KIROL ELKARTEA.-** 2016ko diru-laguntza justifikatzeko agiriak eskatzea.
- **Erref.- 212/17.- ETXAURREN IKASTOLAKO GE.-** 2016ko diru-laguntza justifikatzeko agiriak eskatzea.
- **Erref.- 213/17.- AIARAKO EHIZA ETA ARRANTZA ELKARTEA.-** 2016ko diru-laguntza justifikatzeko agiriak eskatzea.
- **Erref.- 214/17.- E.O.P.-** Obrarako udal-lizentziaren espedientearekin loturiko agiri gehiago aurkezteko eskatzea.
- **Erref.- 215/17.- E.V.C.-** Obrarako udal-lizentziaren eskaerari uko egitea, horretarako eskatutako agiriak epearen barruan ez aurkezteagatik.
- **Erref.- 216/17.- MENAGARAIKO EMAKUME TALDEA.-** Hasiera ematea 2016ko diru-laguntza itzultzeko prozedurari.
- **Erref.- 217/17.- LUXAONDO CLUB DE FUTBOL.-** Hasiera ematea 2016ko diru-laguntza itzultzeko prozedurari

- **Erref.- 218/17.- Fundación San José y San Buenaventura.-** Obrarako udal-lizentzia ematea eta obrekin hasteko baimena emateko behar diren agiriak aurkezteko eskatzea, saneamendu-sarerako hargunea egiteko, uharka jartzeko eta lehendik dagoen horma konpontzeko Arespalditzako partzela batean.
- **Erref.- 219/17.- Fundación San José y San Buenaventura.-** Fidantza eskatzea, Arespalditzako partzela batean saneamendu-sarerako hargunea egiteko, uharka jartzeko eta lehendik dagoen horma konpontzeko obraren ondoriozko eraikuntza- eta eraispen-hondakinak ondo kudeatzen direla bermatzeko.
- **Erref.- 220/17.- IBAIZABAL GAZTETXEA GAZTE ELKARTEA.-** 2016ko diru-laguntza justifikatzeko agiriak eskatzea.
- **Erref.-221/17.- J.P.A.G.-** Landako OHZren ordainagiriak itzultzea.
- **Erref.- 222/17.- Repsol Gas.-** Amaitutzat ematea 10.000 litroko PGLren andel bat kentzeko administrazio-espeditentearen izapideak; andela jabari eta erabilera publikoko lurretan dago, Luiandoko 3. poligonoko 1625 partzelan.
- **Erref.- 223/17 J.M.G.G.-** Etxeko terraza estaltzeko obrarako udal-lizentziaren espeditentearekin loturiko agiri gehiago aurkezteko eskatzea.
- **Erref.- 224/17.- I.M.G.-** Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia berritzea.
- **Erref.- 225/17.- L.F.M.G.-** Luiandoko etxebizitza bateko balkoia konpontzeko obrarako udal-lizentziaren espeditentearekin loturiko agiri gehiago aurkezteko eskatzea.
- **Erref.- 226/17.- J.M.E.A. (Aldak Ongintzako Fundazioa).-** Arespalditzan finkak bereizteko eta batzeko udal-lizentziaren espeditentearekin loturiko agiri gehiago aurkezteko eskatzea.
- **Erref.- 227/17.- G.O.T.-** Informazio publikoa lortzeko baimena ematea.
- **Erref.- 228/17.- L.L.S.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, eraikin osagarri bat egiteko Izurrian dagoen etxebizitza familiabakarrean (lanabesentzako etxola, 26,04 m2-koa).
- **Erref.- 229/17.-** Alkatearen kreditu gehigarriaren 2/2017 espeditentea.
- **Erref.- 230/17.- Izoriako Administrazio Batza.-** Babes ofizialeko 2 etxebizitza egiteko eraikin bat berritzeko obrarako udal-lizentziaren espeditentearekin loturiko agiri gehiago aurkezteko eskatzea.
- **Erref.- 231/17.- AMA BIRJINIA ZURIA emakumeen elkarte.-** Hasiera ematea 2016ko diru-laguntza itzultzeko prozedurari.
- **Erref.- 232/17.-** Alkatearen kreditu-transferentziari dagokion 1/2017 espeditentea.
- **Erref.- 233/17.- Maderas Zerrabe SL.-** Administrazio-espeditentea ebatzea eta Zuhatzako zerrategiko industria-jarduera behin betiko gelditu eta ixteko agintzea.
- **Erref.- 234/17.- GURE ANDERE EMAKUME ELKARTEA.-** 2016ko diru-laguntza justifikatzeko agiriak eskatzea.
- **Erref.- 235/17.- J.M.L.V.-** Erabilera-lizentzia emateko eta eraikuntza- eta eraispen-hondakinak kudeatzeko fidantza itzultzeko espeditentearekin loturiko agiri gehiago aurkezteko eskatzea.
- **Erref.- 236/17.- JEIA.-** Murgan zaharberritutako eraikina okupatzeko lizentziaren espeditentearekin loturiko agiri gehiago aurkezteko eskatzea.
- **Erref.- 237/17.- M.P.A.G.-** Llantenoan eraikin bateko hegoaldeko fatxadaren zati bat botatzean eta berreraikitzean eta inguruko hormak finkatzean sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak kudeatzeagatik jarritako fidantza itzultzea.

- **Erref.- 238/17.- M.F.B.-** Arespalditzako eraikin bat botatzea eta aurri-egoera deklaratzeko administrazio-espeditentea amaitutzat ematea.
- **Erref.- 239/17.- J.M.R.B.-** Atzeratutako hirurtekoak aitortzea eta ordaintzea.
- **Erref.- 240/178.- E.C.B.-** Olabezarren eraikitako etxebizitza familiabakarra lehenengo aldiz okupatzeari buruzko espeditentearekin loturiko agiri gehiago aurkezteko eskatzea.
- **Erref.- 241/17.- T.S.D.R.-** Amaitutzat ematea hirigintza-legezkontasuna berrezartzeko hasitako espeditentea, indarrean dagoen plangintzak baimendutakoa baino landare-hesi handiago bat izateagatik itxitura gisa.
- **Erref.- 242/17.-** Onestea F/2017/6 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.
- **Erref.- 243/17.- Alday Ongintzako Fundazioa.-** Obrekin hasteko udal-baimena ematea, adinekoentzako egoitza berriaren eraikuntzaren 2. faseko lanekin hasteko, Arespalditzako La Llana auzoan.
- **Erref.- 244/17.- J.C.O.V.-** Hasiera ematea biztanleen erroldan ofizioz baja emateko espeditenteari.
- **Erref.- 245/17.- SANTIAGO APÓSTOL ERRETIRATU ETA PENTSIODUNEN ELKARTEA.-** Zuzenketa egitea eta 2016ko diru-laguntza ordaintzea.
- **Erref.- 246/17.- Naturgas Energía Distribución SAU.-** Gasaren obregatik jarritako banku-abala itzultzea Fundiciones Lombide SAri.
- **Erref.- 247/17.- A.Z.M.-** Zorra ordaintzeko epea atzeratzea onartzea.
- **Erref.- 248/17.- I.A.U.-** Zorra ordaintzearekin loturiko errekurtoa atzera botatzea.
- **Erref.- 249.- Agiñagako Administrazio Batza.-** Obrarako udal-lizentzia ematea eta obrekin hasteko baimena eman ahal izateko agiri gehiago eskatzea, Agiñagako hondakin-urak arazteko sistema aldatzeko obrak egiteko.
- **Erref.- 250/17.- Agiñagako Administrazio Batza.-** Fidantza eskatzea, Agiñagako hondakin-urak arazteko sistema aldatzeko obretako eraikuntza- eta eraispent-hondakinak kudeatzeko.
- **Erref.- 251/17.-** Amaitutzat ematea E.C.B.ren aurrean hasitako administrazio-espeditentea, Aiarako 4. poligonoko 723 eta 726 katastro-partzelak ofizioz berreskuratzeke.
- **Erref.- 252/17.-** Amaitutzat ematea E.C.B.ren aurrean asaldatutako hirigintza-ordena berrezartzeko administrazio-espeditentea; ordena hori asaldatu da, hain zuzen, hesiak eta instalazioak eraikitzeke obrak gauzatzegatik 4. poligonoko 198 partzelan.
- **Erref.- 253/17.-** Aiarako Bake Epaitegiko idazkari berria izendatzea.
- **Erref.- 254/17.- L.P.E.-** Baimena ematea eskatutako Udal Artxibategiko informazio publikoa eskuratzeko.
- **Erref.- 255/17.- J.E.A.-** Baimena ematea eskatutako Udal Artxibategiko informazio publikoa eskuratzeko.
- **Erref.- 256/17.- Remai SA.-** RCA 254/2015 prozesuari dagozkion kostuak ordaintzeko eskatzea.
- **Erref.- 257/17.- E.O.P.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Zuhatzan dagoen etxebizitza bateko estalkia konpontzeko.
- **Erref.- 258/17.- U.M.A.-** Luiaondon etxebizitza bat eraikitzeke obrak amaitzeko luzapena ematea.

- **Erref.- 259/17.- DORREKO PILOTA KLUBA.-** Hasiera ematea 2016ko diru-laguntza itzultzeko prozedurari.
- **Erref.- 260/17.- AIARAKO BILTOKIA KULTURA ELKARTEA.-** Hasiera ematea 2016ko diru-laguntza itzultzeko prozedurari.
- **Erref.- 261/17.- MENAGARAIKO EMAKUME TALDEA.-** 2016ko diru-laguntzako justifikatu gabeko zenbatekoa itzultzeko eskatzea.
- **Erref.- 262/17.- AIARA BOLATOKI TALDEA.-** 2016ko diru-laguntza justifikatzeko agiriak eskatzea.
- **Erref.- 263/17.- AIARAKO EHIZA ETA ARRANTZA ELKARTEA.-** Hasiera ematea 2016ko diru-laguntza itzultzeko prozedurari.
- **Erref.- 264/17.- Zorroza Gestión SL.-** Lehenengo hertsapen-isuna jartzea, 172/17 Dekretuaren bidez eginiko errekerimendua ez betetzeagatik, eta zehapen-espeditentari hasiera ematea, ingurumenaren arloko arau-hausteak egiteagatik.
- **Erref.- 265/17.- LAM.-** Udal-lizentzia ematea, Luiaondoko etxebizitza batean obrak egiteko, teilatuan eta fatxadan.
- **Erref.- 266/17.- J.A.S.G.-** Obrekin hasteko udal-baimena ematea, Llantenon dagoen etxebizitzaren estalkia eraberritzeko.
- **Erref.- 267/17.-** Bitarteko funtzionarioa izendatzea, funtzionarioak ordezkatzeko, ezkontzagatik eta oporreatatik.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

19.- Eskaerak eta galderak.

- Iraida andreak (AB) eskatu du, Portugalen gertatutako sutearen harira, hausnar dezatela Plan Orokorrean eukalipto-plantazioak murrizteko edo debekatzeko aukera; hartara, suteen arriskuak saihesten edo murrizten lagunduko dute.

Horren harira, Gentza jaunak (EAJ-PNV) gehitu du hainbat bilkura egin dituztela Plana idatzi duen taldearekin, eta datozen asteetan izango dutela dokumentua, eta orduan osoko bilkurara eramango dutela, onets dezaten.

Iraida andreak esan du uztaileko ez dela egongo, irailean izan beharko duela. Horrez gain, Administrazio Batzetan bilkurak egiteko deialdiak egingo dira, zonaldeka, testuaren edukia azaltzeko eta, jendaurreko epean alegaziorik egin nahi badute, horretan laguntzeko, hasierako onespeneren ondoren.

- Lauren jaunak (BILDU) esan du aurreko eguneko Batzordean ez zela ezer esan Bake Epaitegiaren gaiari buruz, eta galdetu du ea orain gaia nola dagoen, Andoni ez baitago.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du akatsa izan zela sortu den egoeraren berri ez ematea Informazio Batzordean. A.k zuen Bake Epaitegiko idazkari-kargua eta, hiru asteko baimena hartu behar zuenez, legeak ezartzen zuen beste norbait hartu behar zela zeregin horietarako; izan ere, oso epe luzea da eta ezin da hainbeste denbora egon zerbitzu horiek eman gabe. Alabaina, langileak ez zuen hala ulertzen. Udaleko langileei galdetu zitzaion ea zeregin horiek beren gain hartzeko

prest zeuden, eta ezetz esan zuten. Horrenbestez, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako laguntzaileari eskatu zitzaion, eta hark onartu zuen Andoniren zereginak gauzatzea haren baimenak iraungo zuen asteetan, zerbitzua etetea ekiditeko. Adierazi du, halaber, A.k esan duela ez duela Bake Epaitegiko idazkariaren zereginak gauzatzeko jarraitu nahi. Hori dela eta, datozen egunetan prozesu bati hasiera emango zaio, nahi duenak izena emateko eta hautagai egokiena aurkitzen saiatzeko.

Jarraian, Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du Bake Epaitegiaren kontu hau behin-behineko egoeran dagoela; izan ere, Eusko Jaurlaritzari eskatu diote elkarte judizial bat osatzeko Aiara, Artziniega, Okondo, Urkabustaiz eta Gaubeako udalen artean, baina oraindik ez da inolaz ere izendatu bost udaletako Bake Epaitegiko idazkari-lanak egiteko.

Amaitzeko, Gentza jaunak esan du bere akatsa izan zela zegokion batzordean hori ez jakinaraztea, eta barkamena eskatu du.

- Esteban jaunak (BILDU) Barrena kaleko hitzarmena zer egoeratan dagoen galdetu du.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) azaldu du oraingoz hitzarmena ez dela aldatu. Konfederazioarekin egindako bilkura batean ohartu ziren ponpatze-estazioak partzelan aurrerago egon behar zuela. Plan Orokorra idatzi zuen taldeko kide Gerardorekin jarri ziren harremanetan, eta horri buruzko alegazioak egin zituzten, ponpatze-estazioa pixka bat mugitu zezaten, baina alegazioak ez dira ebatzi oraindik.

- Esteban jaunak (BILDU) Luiaondoko botikinaren egoerari buruz galdetu du.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du txabola birgaitzeko lanak bukatuta daudela; orain, jarduerari buruzko agiriak eta Farmazialarien Elkargoak onesteko beharrezkoak direnak egin behar dira. Dena den, kanpoaldeak egokitze lanak amaitzeko daude oraindik.

Jorrazteko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hemeretziak eta berrogeita hamar minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezten, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamazazpiko ekainaren hogeita biei.

OE
ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA,

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta

Sin.: Naiara Lazpita Marcos